



8f
SOUS
Esgar Acelerado · Manfred Acke
· Vincent Allaire · Franck Alleg
Amoureux · Orue Ana · Thoma
Armand · Pierre Arquier · Sébas
Franck Aubrée · Catherine Aucl
A · Arnaud Aunac · Three Mothe
Blavax · Bluephant · Clément
S. Bardiau · Kuz · Louis Baron · F
Baudry · Philbaud · Mickaël Bau
· Mel Beauvais · PBeauverd · Ol
Bengochea Moron · Matteo Be
Bric · Pierre Berthelot · Marc B
Besnainou · Frédéric Besse · Be
Bidot · Jonathan Bienaimé · Fa
· Antoine Bisch · Nicolas Bitaud
· Cyrille Blyweert · Hulk · Fra
Fregator · Ana Bo · François B
Bordes · Dominique Bordier · A
Miche Boudant · Michel Boudie
boulanger · Cyril Boulé · Gael B
Beach · Bernard Bourguignon ·
Bxn · Le Chat qui Fume · Jean
Frederique Bozon · Sylvain Br
Brehaut · Projectra · Pascale
Steffroc · Myriam Brossard R
· Amaury Buhler · Jean Geor
Polomatt · Marc Cabane · Jean
Campant · Mamie Jo · Fabien
Capdevielle · Christian Capon
Baptiste Carrière · Michel Ca
Cathalifaud · Manutieve · Gr
Chaballier · Nicolas Chabeaud
Teo Chambonniere · Simon Ch
Chappuis · Renifer · Hélène
Mchateauvieux · Pece · Camil
· Serge Chauvigne · Billy Cha
Cherre · François Chevalier · A
Schuck · Antoine Christin · C
Clerjaud · Marcel Clervoy · P
Christophe Colette · Françoi
Combes · Comcha · Laurinhe
Fanny Corbin · Damien Corn
Gwenaëlle Cosquer · Christop
Couffin · Francesco · Paul Co
Coustillieres · Chantal Croch
Cure · Matteo Cypriani · Pau
Brigitte Daniel · Maëlle Dty ·
Dauphin · Jean Vincent Dav
Fougères · Axel De Lazzar ·
Debons · Romain D · Yorick
Decrouy · Julien Degreef · M
Delavanne · Aleth Delcense
Pdelges · Jean Jacques Delm
Florent Deneff · Michel Dent

KRIKA

Norbere lurrean arrotz

Irati Majuelo

Ahmadou Kourouma malinkeak 1960ko hamarkadaren amaieran argitaratu zuen *Independenzien eguzkiak*. Zalaparta ugari sortu zuen eleberria honek sorreran, izan ere, Afrikako zenbait herrialdeetan lortutako independentzia berriak auzitan jartzen baitzuten, europarren kolonizazio luzeak haren ondorenean ere utzitako arrasto sakona argitaratu ekarri. Orain, Literatura Unibertsala bildumaren bidez irakur dezakegu. Aiora Jakak izan du euskaratzeko ardura, eta ez txikia, hizkuntzaren auziak bai baitu zeresanik lan honetan.

Kolonizaturiko inguruetan bizi izan diren idazleen kasuetan, ohikoa da kolonizatzaileak ezarritako hizkuntzan sortzea, haren bidez eskolatu diren heinean. Hala da honako honetan ere,



'INDEPENDENZIEK EGUZKIAK'
Egilea: Ahmadou Kourouma.
Itzultzailea: Aiora Jaka.
Argitaletxea: Erein-Igela.

alabaina, idazleak etxeko ez duen hizkuntza hori arrotz teko saiakera egiten du. Hau da, malinkeraz pentsatutako testua frantsesez idatzita dago, Kouroumak argitu modura. «Nire pentsamendua adierazteko zurrunezia zitzaidan hizkuntza klasiko bat itxuraldatuz». Kolonizatzailearen hizkuntza bihurtu, apurtu, desnaturalizatzen du, beraz, ahozko tradizio afrikarrera hurbiltzeko. Itzulpenak bigarren filtro

batetik iragaten du malinkerazko sintaxia, erritmoa eta mundua izendatzeko manera. Ageriko zailtasunak aipatzen ditu itzultzaileak hitzaurrean, eta egon badaude. Hala ere, Jakak asmatzen duelakoan nago.

Norbere lurrean arrotz sentitzearen paradoxa azaltzen du muinean Kouroumaren lehen eleberriak. Fama du protagonista nagusia, Horoduguko printzea, Doumbouya tribu boteretsuko azken buruzagia. Independentzien eguzkiekin, kolonizazio osteko garaia hastearekin bat, ordea, gain behera etorritako dinastia ordezkatzeko Fama. Hirian bizi da Salimata emaztearekin, miseriatik gertu. Antzutasuna pairatzen du bikoteak, eta ondorengorik sortu ezinaz frustrazioa eta obsesiora kondentzen ditu, Famaren gainbehera leinua. Finean, Fama postkolonizazioaren testuinguru berri eta konplexuan bere lekua

aurkitu ezinik bizi den gizona da, eta jendeak oraindik ere begirunea dion arren, hein handi batean galdu den mundu baten parte dela geratzen da agerian.

Independentziak ekarri behar zituen garapen promesak ez dira bete, antzinako tradizioak ez dira jada lehen zirena; zer da afrikarrei geratzen zaiena? Iraganeko kolonizazioaren minak ahaztu gabe zein independentziek sortutako itxaropena erromantizatu gabe idatzitako istorioa da hau. Kouroumak ironia handiz kontatzen ditu bere herrialdean eraldaketa politikoek eragindako kultura eta pentsamolde talkak, herritar askoren nahasmen sententzioa. Alabaina, bizipen mingarri eta traumatikoak azaltzen badira ere, komikotasunak gailen egiten du malinkearraren idazkeran, bere herriak bizitako krisi sozial, kultural eta politikoa parodiara eramanez. ●

KRIKA

Elkartasuna helburu

Imanol Mercero

Albuma irudi bidezko narrazio poetikoa da. Zehazki, letraz idatzitako testu bakarrak ipuinen sarrerako eta amaierako formulak dira, tartean dagoen kontakizuna oso-osorik irudi bidez kontatzen baitzaigu: «Behin batez, egun euritsu eta loretsu batean, bazen euritako handia zuen haur txiki bat», esaerarekin hasten da ipuina, eta «hala bazan edo ez bazan...», formularekin amaitzen.

Liburua esku artean duen edonork daki hau, baina askori ahaztu egiten zaie album ilustratuetan irudiak «irakurri» egin behar direla, eta komeni da azpimarratzea: Irudi bidezko narrazioetan irakurketa grafikoa egin behar da kontakizunaz jabetzeko. Irudiak ez dira apaingarri hutsa, baizik eta interpretatu beharreko elementuak, eta



'EGUN EURITSU ETA LORETSU BATEAN'
Egilea: Carme Sole Vendrell.
Ilustratzailea: Carme Sole Vendrell.
Itzultzailea: Xabier Olaso.
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.

inor ez da jaio gaitasun horrekin, irudiak interpretatzen ikasi egiten da.

Zorionez album hau bezalakoak ditugu, lehen urratsak modu eraginkor eta atseginean egiteko. Ikus dezagun:

Bat. Irudien irakurketan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzearen, ez dago irudirik narrazioan parte hartzen ez duenik. Apaingarrik ez, beraz.

Bi. Ilustrazio guztiak orri-bikoetan antolatuta daude, eta badute ezaugarri bat komikietatik hartua dirudiena: sekuentziario bat dago ezkerretik eskuinera doana, irudia bi pausotako irakur-eremu bihurtzen duena, «orain-gero» moduko zerbait. Ezkerrekoan, «orain» gertatzen ari dena erakusten zaigu, eta eskuinekoan, berehalakoan gertatuko dena, «gero» hurbila. Azpimarratu behar da ezkerreko eta eskuineko bi orrialdeen artean ilustrazio bakarra osatzen dutela, eta ez dagoela gorago irakurketa maila eskatuko lukeen kontraesan bisualik, aktoreak eta ekintzak ez direlako errepikatzen. Zakilixuten zintak irakurritako zertaz ari naizen argiago ulertuko duzuela iruditzen zait.

Hiru. Pertsonaia nagusiak bere burua aterki baten azpian ezkutatu du, eta testuak «haur txiki bat» dela argitzen digu. Aurpegi

ezak sortutako adierazpen hutsunea konpentsatzeko, bere inguruan txori txiki bat eta unxi bat dabilta, herabetasuna, arintasuna eta abegikortasuna bezalako ezaugarriak erantzen. Beste elementu garrantzitsua loreak dira. Loreak bakearen eta senidetaren printzipioei lotzen zaizkie, batik batik oparitzeko erabiltzen direnean, protagonistak egiten duen legez. Gainera, ulertu behar da euriak eta zeru goibelak tristura sinbolizatzen duten bezala, loreak antidotoa direla, eta euren eraginez jendetasuna pizten dela. Egin behar garrantzitsu hauek edukita loreak liburu honen esentzia biltzen duela pentsatzea ez zait gehiegikeria iruditzen.

Gehiegikeria ez dirudien bezala klase-aldarrikapen oinarrikoena den elkartasun soziala bikainki defendatzen duen album bat ere badela esateak. ●

marraskilariak ez ezik, zinemagileak, umoregileak, kazetariak eta idazleak ere batu zitzaizkion proiektuari, eta teknika eta estilo askotako lanak atera zituzten. Muñozek dioenez, «batasun handiko momentua izan zen, eta eraso gizonetako mundutik heldu zen, bereziki gobernutik». Haren ustez, aldizkaria ixteko erabakia «mugimendu feministaren aurkako erreakzioa» izan zen, komikiaren kontrako eraso bano gehiago.

Ah!nana berriz argitaratu eman izana «zorioneko erabakia» izan da Muñozen aburuz: «Hor queer mugimendu osoa ageri da, eta oso erabilgarria da gaur egun ere». Haren ustez, Ah!nana eskuragarri edukitzeak «inspirazioa, ezagutza eta duintasuna» ekar ditzake komikigintzara; «omenaldiaz haragoko zerbait da». ●